

BETIKO ETA HONEN KIDEAK

Beti bezalako aditzondoak, eta, hau bezala, *atzo, etzi, sekula, gaur, bihar, luzaro*, e.a. denbora adierazten duten aditzondoak dira berez. Eta, aditzondo diren neurrian, ez dute deklinabide atzizkirik hartzen:

*Beti on da hizkuntzak jakitea.
Etzi izango da Euskaltzaindiaren bilera.*

Batzuetan, denbora aditzondo hauek izenlagun funtzioa ere bete dezakete. Hori *nongo/noizko* denborazko genitiboa markatzen dutenean gertatzen da:

*Betiko leloa kantatzen dabil hori.
Betiko ametsa du horrek buruan.
Gaurko negarra biharko poz bihurtuko ahal da.*

Kasu hauetan, ikusten denez, *aditzondo-oinarria + ko* forma erabiltzen da. Hori izan da euskalki guztietako literatura testuetan erabat erabili izan den forma bakarra:

*Betiko itoginak arria zulatu, ta aldi luzeak guztia artu (RS 16).
Ez dela hemen gure bethiko egoitza (Lap 22 (V 13).
Hitz hartu nintzan ene betiko lagun Lorenzo Tolosarekin (Xa Odol 35).
Mañasi ona, (...), ta bere betiko adiskide Josepa (Ag. Kr 23).*

Beste batzuetan, aditzondo horiek adizlagun bihur daitezke, kasu destinatiboan:

*Adiskide, ze asmo duk biharko?
Gaurko hemen izango zela esan zuen.*

Ikusten denez, kontsonantez bukatutako hauek *-ko* hartzen dute zuzen-zuzenean, nahiz noizbehinka *noizkorako, biharkorako*, e.a. bezalako formak ere ageri diren. Bokalez bukatzen direnekin, ordea, zalantzak sor daitezke: *betiko/betirako*.

Idazleen eta hiztunen usadioa kontuan hartzen bada, gauzak aski direla dirudi: Ekialdean *betiko* eta honen aldaerak (*betikoz*) erabili ohi dira beti; Mendebalean ere, Arrueren kasuan izan ezik, *betiko* erabili izan da XX. mendea arte. *Betirako*-ren adibide guztiak berriak dira, mende honetakoak eta Mendebalekoak: Labayen, Lizardi, Inza, B. Enbeita, Basarri, Berrondo, Txillardegi eta Irazusta. Erabileraren kopuruari begiratu gero, hala ere, %6 inguru baizik ez dute osatzen *betirako* aldaeraren adibideak.

Honenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: Idazleen erabilera eta deklinabideko egituratze formala kontuan hartuta, garbi dago *betiko* dela forma egokia Euskal Herri osoari begira eta *aditzondoa* + *ko* forma dela hobetsi beharrekoa. Hortaz, *gaurko*, *biharko*... bezalaxe, *atzoko*, *etziko*, *sekulako*, *luzaroko* eta *betiko* bezalako formak dira aditzondoentzako hobesten direnak.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)